

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Euskaltzaindiaren Araugintza 2016an

Exonomastika batzordea

1. Osoko bilkuran 2016an eztabaidatutako arauak

2016an, pertsona-izenak lantzen jarraitu du Exonomastika batzordeak, eta onomastikarekin zerikusia duten deklinabideari buruzko gai batzuk ere landu ditu. Langintza horren ondorioz, zenbait aragai aurkeztu dizkio osoko bilkurari.

1.1. Exoantroponimia

1- Maiatzeko Osoko bilkuran Goi Erdi Aroko pertsona-izenak (araugaia) aurkeztu zen.

2- Iraileko Osoko bilkuran, *Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak: musulmanak, juduak eta turko-mongolak* araugaia aurkeztu zen.

3- Iraileko Osoko bilkuran, *Goi Erdi Aroko pertsona-izenak (Europako mendebaldea) (Iberiar penintsulako musulmanak izan ezik)* araugaia onartu zen.

4- Urriko Osoko bilkuran, *Pertsona-izenen grafia egokitzea_ irizpideak_Europako errege-erreginak* araugaia aurkeztu zen.

5- Azaroko Osoko bilkuran *Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak: musulmanak, juduak eta turko-mongolak* araugaia onartu zen.

6- Abenduko Osoko bilkuran, *Dinastien izenak* araugaia aurkeztu zen.

1.2. Deklinabideari buruzko gaiak

1- Otsaileko Osoko bilkuran *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* txostena/araugaia aurkeztu zen.

2- Ekaineko Osoko bilkuran *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* txostenaren/araugaiaren bigarren bertsioa aurkeztu zen.

3- Iraileko Osoko bilkuran, *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* araugaiaren lehen parte onartu zen.

4- Abenduko Osoko bilkuran, *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* araugaiaren bigarren parte onartu zen, hurrengo osoko bilkuran onartzeko aurkeztu beharreko ohar bat sartzeko baldintzarekin.

2. 2016an argitaratutako arauak

Maiatzean, 179. araua argitaratu zen (*Bizantziar Inperioko pertsona-izenak*).

Mila urte iraun zuen Bizantziar Inperioak, K.o. IV. mendetik K.o. XV. mendera, eta munduko merkataritza-gune nagusietako bat izan zen. Eragin erabakigarria izan zuen Europako parte handi bateko eta Ekialde Ertaineko legetan eta sistema politikoetan, eta hari esker gorde eta hedatu ziren mundu klasikoko eta beste kultura batzuetako zientziako eta literaturako obra ugari.

Bizantziar Inperioko izenak latinaren bidetik iritsi ziren, gehienbat, Europako mendebaldera. Beraz, Antzinateko eta Erdi Aroko izen horien euskarazko grafia erabakitzeko irizpideak Antzinateko Greziako eta Erromatar Inperioko izenetrako berak dira. Irizpide horiek 1997an eman zituen Euskaltzaindiak 76. arauan, eta 2014an berretsi zituen arau hori eguneratu eta emendatu zuenean. Ez dago, beraz, irizpide berririk.

Bizantziar Inperioko 59 pertsona-izen ematen ditu arauak, bi zerrendatan antolatua. Lehen zerrendan, enperadoreak. Bigarren zerrendan, kultura, arte, erlijio, zuzenbide edo arlo militarreko zenbait pertsona nabarmenen izenak ageri dira.

Exonomastika batzordeak lantzen dituen lanetan ohi den bezala, zerrenda elea-niztun bat ematen da, izen bakoitza euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez nola idazten den erakusteko. Eta latinezko eta grekozko izenak ere ematen dira.